

«ZURE AHALEGINA, DENON ATSEGINA» (II)

---

2018-2019 Kanpaina Instituzionala

Zure ahalegina  
denon atsegina



Tu compromiso  
mejora el mundo

*Oinarriak*

## Aurkezpena

Konpromisoz bizitzea munduan izan eta egoteko modu bat da. Konpromisoa bide ebanjelikoan bizitzeak Nazareteko Jesus jartzen digu erreferente gisa, eta Jesus gurutzeraino eraman zuen arrazoi beraren alde lan egitera garamatza, arrazoi hori geure bizitzaren erdigunean jarrita: pertsona oroenganako maitasuna da garrantzitsuena, leku eta garai orotan behartsu eta ahulenenganako maitasuna.

Egia da garai zailak direla hauek, eta pertsona gisa dauzkagun osotasun eta duintasuna osatzen dituzten giza gaitasun zein balioak arriskuan daudela. Baina, beharbada, ez dira duela bi mila urte baino okerrago egongo; garai hartan indarrean zegoen eredu politiko, sozial, estruktural eta kulturalak azken puntuan jartzen baitzuen pertsona. Botere eta aberastasun egarriak berdin itsutu izan ditu Egiptoko Faraoiak, Erromako Zesar eta XXI. mendeko egungo munduan ditugun agintariak.

Historian zehar, zenbait gizon eta emakumek beren garaiko errealitatearen gaineko kontzientzia hartu dute, eta gehiengoaren kontra bizitzera eraman dituzten bideak hartu dituzte. "Gehiengo" handiek "guztiak balio du" gisako justifikazioak ekarri dituzte berekin, "mundu guztiak egiten du berdin" edo "edozer gauza, edozer preziotan" gisakoak; izan ere, gehiengo boteretsu horrek, barne hartzen duen sistemaren biktima itsu izan den horrek, onartu eta bermatu egiten ditu adierazitako justifikazioak.

Pentsaera eta jarrera mota horrek ia ezerezean utzi eta uzten ditu zenbait balio (justizia, zuzentasuna, askatasuna, guztion ongizatea, elkertasuna, bakea, duintasuna, gizatasuna, barkamena...), harik eta edukitzean oinarritutako jarrera nagusi horren baitan desitxuratu eta desagertu diren arte, arauak aldatu eta iraganeko jendartearen balio bilakatuta.

Gaur, beste garai batzuetan bezala, balio horiekin konprometituta bizitzea da gailentzen den mugimenduaren kontra egiteko modua. Gaur, gure jendartearen diren pertsona behartsu eta ahulenak maitatzean zentratuta bizitzea ez da ohikoena; ez da ohikoena liluratzen gaituen eta gehiago eduki nahi izatera garamatza aberastasunak alde batera utzi eta austeritate eta soiltasunez bizitzea.

Gaur, aurreko garaietan bezala, oraindik ere badira zerbait ezberdina eta ezohikoa bilatzen duten emakume eta gizonak. Bizia ematea da horien asmoa, sarri ikusezin eta anonimoak diren eguneroko gurutzeak (propioak zein besteenak) beren gain hartuta maitatzea; baztertuta, ahaztuta eta modako jarreretatik at bizi diren pertsonen gurutzeak beren sorbaldetan hartzea erabakitzen dute, denon ongizatearen alde bizitzea, izaki guztien alde begiratu eta entzutea.

## Sarrera

Caritasen fronte estrategiko ugaritan egiten dugu lan, gure lurretako kostalera heltzen diren errealitateen eztandei erantzuteko. Zeharkako kontu handiak dira, gehien sufritzen duten pertsonetikiko konpromiso eta erantzuna bideratzen laguntzen digutenak. **Pertsonen mugikortasuna** eta milaka migratzaile etxe bila etengabe joan-etorrian ibiltzea, **guztion etxea eta sorkuntza zaintzeko** dugun erantzukizun eta erronka, pertsonekin bidezko eta solidarioa den **ekonomia sozialaren** aldeko bultzada, ... gure arreta osoa behar duten gaiak dira; eta horiekin uztartu behar dira egunero Caritasen bulego eta zentroak betetzen dituzten beste zenbait emakume eta gizonen errealitateak. Horiei guztiei aurre egiteko, behar-beharrezkoa dugu boluntario, teknikari, bazkide, emaile eta, oro har, asmo oneko pertsonen elkartasuna, egunez egun lanean ari baitira, pertsonen eta mundu osoaren bizitza hobetzeko asmoz.

**Konpromisoa** bizimodu izatea gure hausnarketaren eta ebaluazioaren ardatz nagusi ere bilakatu da, Eliza garen aldetik burutzen dugun karitate- eta gizarte-ekintzak aurkezten dizkigun **erronkei** hobeto erantzun ahal izateko.

**Zure ahalegina, denon atsegina** kanpainak aukera ematen digu kristau-konpromisoaren esanahian sakontzeko, konpromiso hori munduan izan eta egoteko modu gisa barneratzeko, eta gure zain dagoen errealitate horri erantzuteko. Era berean, **beste urrats bat ematera** ere bagaramatza konpromisoak; geure buruari galderak egitea eragiten digu, gauzak nola eta nondik egiten ditugun hausnartzera. “Non zure altxorra, han zure bihotza”<sup>1</sup>. Gure ekintzaren kalitate eta benetakotasunean sakontzea da kontua, geure motibazioaren erroa aztertzea.

**Besteekin elkartzera irteteko** gonbitea jaso dugu; bakarrik eta abandonatuta dauden horiekin, gehien behar dutenekin, behartsu eta ahaztuenekin elkartzeko gonbitea. Horixe da Caritasen izateko arrazoi nagusia, pertsona bakoitzaren barnean dagoen **maitasuna mugiaraztea**, geure baitan dagoen harrera-gaitasuna eta errukia piztea, arreta behar duten pertsonekin, behartsu eta ahulenekin elkartu gaitezen, haiek baitira Jaunaren gogokoenak.

Sarritan esaten dugu **geure misioaren ardatza** errealitatea eraldatzea dela, baina ohartzen al gara *zein neurritara arte uzten diogun geuk errealitate horri guri eragiten?*

Bilera, lan- eta analisi-saio askotan, jarraitzen dugu egiaztatzen laguntzarako jarrera dugula oraindik Caritasen, jendartean, jendeak gugandik espero duenaz pentsatzen jarraitzen dugula; konturatu gabe, profesional, boluntario, apaiz, bazkide, emaile, zaleen eskuzabaltasuna eta entrega mantentzen dugu, proiektu eta ibilbideetan zehar nabigatzen dugu, inori kalterik egiteko asmorik gabe; beti begirada eta asmoa Caritasera hurbiltzen den pertsona bakoitzarengan zentratuta, geure ekintzaren erdigune izan dadin.

Hala eta guztiz ere, errealitatea eraldatu nahi badugu, ezinbestekoa da **bestearen eta besteen errealitateei geure bizitzan sartzan uztea**, pertsona bakoitzaren bizitzan eta erakundean bertan -Elizbarruti edo Parrokia bakoitzeko Caritasen- eragina izan dezan uztea. Besteen errealitateek hitz egin diezaguten uztea da, aurrez aurre begietara begira diezaguten, eta nobedade, sorpresa eta liluraz beteriko xuxurlak belarrietara esan diezazkiguten; pertsona bakoitzaren

---

<sup>1</sup> Mt 6, 21.

errealitatea sakratua eta eraldatzailea delako berez. Errealitate pertsonal eta parerik gabeko hori geuregan sartu behar da eta egiten dugun eta garen hori zalantzan jarri eta aztertzea eragin behar digu. Errealitate horrek ukitzen gaituenean, orduan bakarrik izango da posible eraldaketa; gurea lehendabizi eta gizartearena ondoren. Horrela bakarrik lortuko dugu karitate- eta gizarte-ekintza eredu honetan lortu nahi dugun eraldaketa soziala.

Hortaz, ez da soilik geure kanpoan dagoen errealitatea eraldatzea, baizik eta **errealitateari gudan sartzen eta gu eraldatzen uztea.**

**“Ezagutzen duguna baino ezin dugu maitatu, eta maitatzen duguna ezagutu”.** Beste pertsona baten edo batzuen errealitateak ukitzen gaituenean baino ez gara mugitzen, orduan erreakzionatzen dugu, horien **errealitateaz bustitzen garenean, horien aulki berean esertzen garenean,** eta mundua horien leku beretik sentitu eta ikusten dugunean.

## Kanpainaren helburuak

- Begirada, ulermena eta bihotza zabaltzea, pertsona behartsuenekiko sentikor izateko eta bizi duten errealitatea eraldatzen lagundu ahal izateko.
- Geure garaiko errealitate eta seinaleekiko entzumen aktibo eta arretatsua lantzea, gure ekintza zein bizimodua eta munduan dugun presentzia bereizi ahal izateko.
- Konpromisoari aurre egitea, komunitatean presente den Espirituari zabalik; hark ematen baitizkigu Jesusen bidean laguntzeko bultzada eta kemena, baita justiziaren alde lan egiteko ere.
- Caritaseko eragileei eta kristau komunitateari behartsuarekin elkartzeko deia luzatzea, horrek errealitatea ikusteko dugun modua aldatu egiten duelako, eta jarrera berriak eta konpromiso eraldatzaileak eragiten dituelako gure barrenean.

Helburu horien bitartez, Caritaseko eragileen karitate- eta gizarte-lana bultzatu nahi da, Jainkoak gizadi osoarekiko duen maitasunezko munduan egiazko presentzia izatera deituak baitaude.

*Ikuspegia galtzea berau eraikitzen duen arrazoia galtzea da nolabait. Hortaz, Jendarte osoa itsutuz gero, elkertasuna, betebeharra, errespetua ahaztuz gero, suge kabi bilakatuko litzateke mundua. Hala, itsutasun metaforikoa da nagusi. "Nik uste dut jendea itsutzen ari dela, ez baita konturatzen gure bizitzeko modua erabat okerra dela eta hondamendira garamatzala"; bide honetan jarraituz gero, hori gertatzeko arriskuan egongo gara<sup>2</sup>.*

Errealitateari zein neurritan uzten diogun guri eragiten galderari erantzuten saiatzeko, ezinbestekoa da lehendabizi geure buruari beste galdera errazago bat egitea: Ikusten al dugu errealitatea? Zer ikusten dugu bertan? Begiratu baino gehiago egin behar da; baina, zenbaitetan ikusi baino ez dugu egiten bizitzan, begiratu eta sentitu gabe; edo zeharka ikusten saiatzen gara, besteek gu antzeman edo harrapatu gabe, norbaitek geure arreta eta begirada bereganatuko ote dituen beldur; gure begiak besteenekin ez elkartzen saiatzen gara, lotura horrek beste alde batera begiratzen utziko ez ote digun beldurrez.

Sarritan ez dugu geure munduaren, inguruan dauden pertsonen errealitatea ikusi nahi izaten, horrek sufriarazi ez diezagun, pertsona horiei begiratu behar izan ez diezagun, beren errealitateari gure bizitzan sartzen ez uzteko; horrek konprometitu egingo gintuzke, batez ere errealitate hori min edo bidegabekeriaz betea bada, bakardadez josia badago ... Izan ere, horrek guztiak gogorarazten digu geuk ere bakardade eta hutsuneen artean nabigatzen dugula maiz, eta geuk ere bilatzen ditugula erantzunak. Jesusen antzera, basamortura bultzatuak gara eta errealitatea ezkutatzeko gai diren ehunka mekanismorekin egiten dugu topo; zoriontasun erraz eta berehalakoa saltzen saiatzen dira, erabili eta botatzeko zoriontasuna, egunerokoan erabiltzen ditugun beste hainbeste objektu bezalaxe.

"Nire semea zara, neuk maite dudana, neure kutuna"<sup>3</sup>. Jesusek Aita gisa sentitzen du Jainko sortzailea, zeru eta lurretako Jaun gisa, eta erabat aldatu egiten da bere buruaz eta existentziaz duen pertzepzioa<sup>4</sup>.

Gaurkoan, geuk ere entzuten dugu Jainkoaren xuxurla munduan.

Jainkoak begiratu eta maitatzen gaitu, hori da Gizadiaren historiako iraultzarik handiena. Basamortuan, zentzumenak zorrozten eta purifikatzen ikasi zuen Jesusek; isiltasun eta bakardade aldiak bere zein garaikide dituen horien bizitzaren zentzuan sakontzeko aukera eman zion, ikusten denetik harago ikus dezakeen errealitate hori aztertu ahal izateko. Basamortuaren handitasunean, ezer ez dagoela ematen duen horretan, errealitatea sentikortasun ezberdinaz ikusten ikasi zuen Jesusek. Egun eta gau luzeek begirada ezberdin eta sortzailea ahalbidetu diote, pertsona bakoitzaren baitan eta munduan bertan dauden bizitza-aukerak iragartzeko.

---

<sup>2</sup> *Tendencias* aldizkaria, 2000ko abenduaren 12a, J. Saramagori elkarrizketa.

<sup>3</sup> Mc1, 11

<sup>4</sup> Cfr. Mt 11, 25.

Jainkoak maitatua sentitzeak aukera eman dio bere errealitate propioa topatzeko, Jainkoa eta munduaren errealitatea ezagutzeko.

Zer ikusteko gai gara geu, XXI. mendeko kristauok?

Nondik begiratzen diogu munduaren zein geure errealitateari?

*Anai-arreba asko daude laguntza jasotzeko zain, zapaldu asko justizia lortzeko zain, langabe asko lana eskuratzeko zain, herri asko errespetatuak izateko zain: Nola da posible, bada, gaur egun oraindik jendea gosez hiltzea? Analfabetismora kondenatua egotea? Oinarrizko osasun-arretarik ez edukitzea? Babesteko aterperik ez edukitzea? Garai bateko pobreziei egungo pobrezia berriak gaineratzen badizkiegu, pobrezia panoramaren mugarik gabe heda daiteke. Sarritan baliabide ekonomiko faltarik ez duten baina zentzugabekeriaren desesperazioan murgilduta dauden giro eta taldeei eragiten die pobrezia, drogaren maltzurkeriagatik, zahartzaroak edo gaixotasunak eragindako abandonuagatik, marjinazioagatik edo gizarte-bazterkeriagatik ... Gai izan gaitezke desoreka ekologikoaren aurrean beste alde batera begiratzeko, horrek planetaren zati handi bat gizakiaren etsai eta bizitzeko ezegoki bilakatzen duenean? Edo guda katastrofikoaren amesgaiztoak bakea mehatxupean jartzen duenean? Edo hainbat pertsonaren, bereziki haurren, oinarrizko giza eskubideak zapalduak izaten direnean?*<sup>5</sup>

Benetan, nola izan gaitezke gai hori guztia ez ikusteko?

“Pertsona berriro jaiotzen ez bada, ez da Jainkoaren erreinua ikusteko gai”<sup>6</sup>.

Hori erantzun zion Jesusnek Nicodemori, gauerdian Jesusengana ezinegonez ezkutuka hurbildu zitzaionean. Erantzun bila zebilen, gu bezalaxe, eta bere errealitatea geurearen antzekoa zen. Eta, guk bezalaxe, bizitzea egokitu zaion errealitatearen gaineko begirada aldatu beharra zeukan.

Errealitatea da ahaztuen aldarria, bakarrik eta abandonatuta dauden atso eta agureena, lanik eta aukerarik ez duten horiena, helmugarik gabeko migratzaileena, lur eta eskubideak lapurtuta dituzten herri indigenena, trata eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeena. Errealitatea da horien guztien aldarria. Jesus gai da errealitate hori zultzeko eta, min eta sufrimendutik harago, argi eta itxaropenari igarotzen uzteko, aukerak eta bizitza bera ikustarazteko. Jesusen begirada samurra errealitate guztietan Jainkoa topatzera garamatza, eta errealitate horietan nahastera bultzatzen.

“Begira nazazu, maite zaitzadan”<sup>7</sup>.

Jesusek errealitatea ikusten du, errealitateak uki dezan uzten du, begiratu egiten du, aldarria entzun egiten du eta mugiarazten uzten dio. Jesusek bizitza dakar berekin, gizadiaren bizitza hartzen du bere egitekoaren ardatz eta harekin nahasi egiten da, bere bizi osoa maitasunez emateko prest. Haren keinu eta hitza samurtasunez mugitzen dira eta izaki bizidun guztiekin

<sup>5</sup> Elizaren Dotrina Sozialaren Laburpena, aurrerantzean *CDSI*, 5.

<sup>6</sup> Jn 3, 3.

<sup>7</sup> San Agustin.

lotzen dute, guraso eta seme-alaben arteko maitasun mugagabe horrek Aitarengan erabateko konfiantza edukitzera daramalarik: “Begira itzazue zeruan dabiltzan hegaztiak; ez dute ezer ereiten, ez uztarik biltzen, eta ez dute bihitegirik. Baina zeruetako Aitak elikatzen ditu”<sup>8</sup>.

Jainkoaren xuxurla jasotzeko prest egon behar dugu, uki gaitzan eta errealitateak busti gaitzan utzi behar dugu, harekin harremana izan eta komunikatu behar dugu, errealitatea begiratu eta maitatzeko. Betiko zereginak egiteari utzi behar diogu, gauden lekuetatik altxatu eta eserlekuz aldatu behar dugu, bulegoetara eta parroketara iristen diren pertsoneri begiratu, beste leku batetik etorri eta kaletik dabiltzan pertsonengana hurbildu, lehendabizikoz begiratzen hasteko, beste modu batean eta beste ikuspegi batetik. Utz diezaiogun berria den horri gure bizitzetan sartzen, gure izan eta egiteko moduari eragiten, honela esaten baitigu Isaias profetak: “Begira, zerbait berria egiten ari naiz, ernatzen ari da dagoeneko, ez al duzue nabaritzen?”<sup>9</sup>.

“Miserikordiaren fantasiari bidea irekitzeko unea da, ekimen berriak abian jarri ahal izateko, etxe eta lan duinik ez daukatenekin, errefuxiatuekin elkartze ausart eta sortzaileak ahalbidetzeko, baita hazkunde ekonomikoan eta segurtasunean zentratua dagoen gizarte honek baztertutako horiekin ere, Jainkoa aitortzeko eta giza eskubideak defendatzeko betarik hartzen ez duten horiekin”<sup>10</sup>.

## ENTZUTEA, ERANTZUN AHAL IZATEKO

Errealitateari adi egoteko, hari ezagutzeko eta ematen diguna ulertu ahal izateko, entzuteko prest egon behar dugu, eta gaur egun asko kostatzen zaigu hori. Hitz egiten dugu, komunikatzen gara, ahozko zein ahozkoak ez diren mezu asko eta askotarikoak igortzen ditugu, modu kontziente zein inkontzientean. Etengabeko bonbardaketa egiten dugu besteengan, baita geure buruarengan ere. Baina, horretatik guztitik zer jasotzen dugu? Zer nolako gaitasuna daukagu entzuteko eta entzunak izateko? Mende honetako gizakiok zarata egiteko garatu dugun gaitasuna historiako altuena izango da seguru asko. Kutsadura akustikoa gaineratu behar diogu gas eta hondakinek eragindako ingurumen-kutsadurari. Mota guztietako hondakinen gehiegikerian bizi gara gaur egun.

“Hasieran bazen Hitza; Hitza Jainkoari zuzentzen zitzaion eta Hitza Jainkoarena zen. Haren bitartez egin zen guztia; hura gabe ez zen egindakotik ezer egin. Hitzak bizitza zuen bere baitan, eta bizitza hori zen gizakiaren argia; argi horrek dirdira egiten zuen iluntasunean, eta iluntasunak ez du oraino ulertu”<sup>11</sup>. Horrela azaltzen du Juan ebanjelistak garai guztien hasiera;

---

<sup>8</sup> Mt 6, 26.

<sup>9</sup> Is 43, 19.

<sup>10</sup> *Misericordia et misera* Karta apostolikoa, n.18.

<sup>11</sup> Jn 1, 1-5.

Hitza unibertsoaren isiltasunean igortzen zen, kaosa eta mugimenduarekin, zalaparta eta nahasmenduarekin batera.

Milaka milioi urte geroago, Lurra baino ez da argi eta iluntasunaren, ongi eta gaizkiaren, isiltasun eta zarataren, maitasun eta gorrotoaren arteko betiereko borrokaren protagonista. Antitesi horiek jarraitzen dute munduaren mugimendua markatzen, oihartzunik sendoenaren erritmoan. Ba al da zarata desatseginagorik, zakarragorik, soinu ezberdin gehiagorik, espazio horretan lekua egiteko lehian? Hala bada, mugimendua zakarragoa eta oldarragoa izango da, tsunamien antzera aurrean duten guztia hondatu eta berekin daramaten indar boteretsu eta hilgarriak. Ba al da isiltasun eta espazio gehiagorik, soinu bakoitzak bere lekua bete dezan? Hala bada, gaitasun handiagoa izango dugu belarria zorroztu eta soinu bakoitzaren aniztasuna antzemateko.

Mezu gehiegi igortzeak eta gehiegizko zarataren ondorioz entzun zein jasotzeko gaitasun txikiagoa edukitzeak desoreka eragingo du nahitaez eta, hortaz, zailagoa izango zaigu munduaren errealitatea entzutea eta hari arreta jartzea. Horrek guztiak Jainkoari entzutea eragozten digu.

“Mintza zaitetz, Jauna, mirabeak entzungo zaitu eta”<sup>12</sup>. Munduaren errealitateak entzuna izan nahi du premia, isiltasuna eskatzen ari da gure gauaren erdian bidea egiteko, gu geu Samuelen hitz berak zezeltzeko gai izateko, Jainkoa gure garaitik igarotzearen zantzuak deskubritzeko gai izateko.

Munduarekiko, Sorkuntzarekiko, Gizadiarekiko konpromisoak behar-beharrezkoa du bizitzan egunerokotasuna eta aukera pertsonal eta komunitarioak **bereiztea**.

Bereizteak behatzea esan nahi du, ezagutzea, entzutea, erabakitzea, bizitza antolatzea, naizen honen, esaten dudanaren eta gainerako pertsonen zein munduaren errealitatearekiko elkarreraginean egiten dudanaren arteko oreka eta koherentzia bilatzea. Bereizteak bizitza jokoan jartzera garamatza, geu garen bezalakoak agertzeko, jomugan jartzeko, Jainkoaren menpe eta gizadiaren zerbitzura egoteko.

Horrela baino ezin izango dugu geure egin Jesusen atzetik baldintzarik gabe dabilzan gizon eta emakumeek behin eta berriro errepikatzen duten salmoa:

“Hemen nago Jauna, zeure nahia betetzeko”<sup>13</sup>.

Bereizteak bilakaera pertsonal eta sozial sakonera garamatza, zentzumen guztiak etengabe garai ezberdinetako seinaleei adi edukitzeraino.

Gehiegizko zarata, bakardadea, indibidualismoa, bestearen sufrimenduarekiko sentikortasun eza, axolagabekeria, botere eta aberastasun nahi aseezina, ... horiek guztiak nagusi dira gaur egun; pertsonak gogoz kontra gero eta gehiago mugiarazten ditu, migrazio-korronteak eta errefuxiatu-zelai masifikatuak ugarituta; naturaren gehiegizko ustiaketa elikatzen dute, eta

---

<sup>12</sup> I Sam 3, 10.

<sup>13</sup> 39. Salmoa.



guztiona den etxearen narriadura bultzatzen; pertsonen esklabutza antolatu eta baimendua sustatzen dute, bizitzaren zentzua eta modu integralean garatzeko eskubidea ekonomiaren menpe utzita.

Jainkoa gure historian igarotzen den bidetik bereizteko beharrezkoa dugu isiltasuna eta lasaitasuna, entzumen arretatsu eta isila, geure protagonismo egarria baretzeko; ezinbestekoa da esateari uztea, besteek esateko, eta hortik abiatuta Jainkoak esaten digunarekin bat egitea, orainaldiko erronkei erantzun ahal izateko.

Frantzisko aita santua garaiotako seinaleekin sintonizatuta dago eta, Juan basamortuan egon zenean bezalaxe, behin eta berriro iragartzen digu Jainkoaren erreinua oso hurbil dagoela, are gehiago, hemen bertan daukagula, begien artean. Era berean, plaza eta herrietara irteteko deia luzatzen digu, ardi eta lur usainez bustitzen uzteko deia, entzun eta ukituak izaten uzteko deia, Ebanjelioak dioen gisan, gatz eta argia izateko. Honela adierazten da azken *Gaudete et exultae* Aholku apostolikoan: “Interesgarriena da fededun bakoitzak bere bide propioa bereiztea eta bere baitan duen onena -Jainkoak beregan jarri duen elementu pertsonal hori argitara ateratzea (Cfr. I Cor 12,7); harentzako pentsatua izan ez den hura imitatzen saiatzeagatik desgastatu gabe”<sup>14</sup>.

Santu izatera deituak gara, gure etxe eta hirietako behartsuen, gaixoen, tristen eta abandonatuen zerbitzura gauden gizon eta emakumeak.

“Jainkoa, bere alderdi bizidun eta azalezkoenean, ez dago guregandik urrun, esfera ukigarritik kanpo; ekintzan itxaroten gaitu momentu oro, unean uneko ekintzan”<sup>15</sup>.

## BIDEA ELKARREKIN EGITEA

Jesus, isiltasun eta basamortuko egunen ondoren, eta Jordanen Espirituaren bataioa egingakoan Jainkoaren maitasunari erantzutea erabaki ondoren, Galileara itzuli zen eta bere abenturan bidelagun izango zituen horiek aukeratu zituen. Maitatua sentitzeko esperientzia ez da indibiduala, ezta pertsona bakarrarena ere; hirukoiztarra da berez, komunitatea.

“Zatozte nirekin eta gizonen arrantzale egingo zaituztet. Berehala utzi zituzten sareak eta haren atzetik joan ziren”<sup>16</sup>. Geure buruarengandik harago dagoen errealitateak gudan eragiten uztera deituak gara; “hemen nago, Jauna, bete dadila niregan zure Hitzà” esan dezakegu, Mariak Magnifikat fede- eta entrega-ekintza ederrean bezala; baina munduaren errealitateari komunitatean baino ezin diogu erantzun, bide-laguntzaren bidez, entzunez, eta elkarrekin harrera eginez.

---

<sup>14</sup> Frantzisko, *Gaudete et exultate*, n.11.

<sup>15</sup> Teilhard de Chardin, *El Medio Divino*, Taurus Ed., Madril, 1959, 54. or.

<sup>16</sup> Mt 4, 19-20.

Jesusen jarraipena galdera batean oinarrituta dago (“zeren bila zabilzate”), eta harekin batera gonbitea dator: “zatozte eta ikusiko duzue”. Jesusek ez die ezer berezirik eskatzen, beren bihotzen grina, hutsunea entzun baino ez du egiten, iristen ez diren erantzunen erruz bizitzan sentitzen duten aseezintasuna aztertzen du. Gonbite horrek lekuz kanpo utzi ditu orduan. Ez ditu gonbidatu besteak baino hobeak direlako; pertsona bakoitzaren barrenean dagoen zerbait berri horren bila dabilelako gonbidatu ditu: zoriontsu izateko grina eta desio sakonaren bila. Bilatzen duten zoriontasunaren erantzuna Zorionbideen bizi-proiektua bera da.

“Zoriontsu dira behartsu izatea erabakitzen dutenak ... Zoriontsuak sufritzen dutenak ... Zoriontsuak indarkeria erabiltzen ez dutenak ..., gose eta justizia egarria dutenak, bihotz garbia dutenak ... Horiek ikusiko baitute Jainkoa”<sup>17</sup>. Zorionbideek irekitzen dute Jainkoarren erreinura iristeko bidea; partekatzen dugun planean eta komunitatearen erdian isuritako odoletan zin egiten dugu, heriotzatik bizi berrirako iragatearen lekuko bilakatuta; izan ere, Jesus Berpiztuak gaizkiak kanporatzen ditu eta desesperazioaren zauri sakonak osatzen (barkamen gabeziaren, eszeptizismoaren eta bihotz hotzen zauriak).

*Berri ona mundu osoan zehar barreiatzera*<sup>18</sup> deituak gara, fededun eta fedegabeengana, baldintza orotako gizon eta emakumeengana; ez soilik karitate eta justizian oinarritutako ekintzak burutzeko, baizik eta pertsona eta komunitate ezberdinetan dohain eta karisma aniztasuna isurtzen duen Espirituaren isla izateko. Izan ere, Espirituak ausardia, poztasuna eta gogo bizia eragiten ditu, gizarte- eta egitura-aldaketa iristen ez dela ikusteak eragiten dituen min, frustrazio eta estutasunari aurre eginez.

Komunitatean egiten da indartsu Jainkoarenganako fedea, harkaitz eta zimendu bilakatzen da, senidetasun esperientzia maitasunaren inguruan sortzen baita, ematen den bizitzarekiko eta gure muga eta miserien barkamenarekiko maitasunaren inguruan. Horrela soilik lortuko dugu gutako bakoitzean bizi den Jainkoak salbatu eta berriro bidaltzea.

Garaiotako kristau gisa, errealitatea ezagutu eta *haren kargu hartzera behartuak* gaude; behartsu eta ahulenen errealitatea geure gain hartu behar dugu, bihotza errukiz eta miseriakordiaz beterik; eta pertsonen bizitzaz arduratzeko konpromisoa hartu behar dugu, haiekin senidetasunean oinarritutako bidea eraikiz<sup>19</sup>.

Elkarrekin bidea egin, otoitz eta barre egiten badugu soilik izango da posible; bakoitzaren dohainak ezagutzeko gai bagara eta misioaren bidean elkar adoretu eta bultzatzen badugu. Horrela, Eliza gisa erantzun ahal izango diegu jendarte honen erronka handiei, bizitzeko egokitu zaigun garai honen seinale berriak bereizi ahal izango ditugu, eta gure historiako gizon eta emakume bakoitzari giza duintasunez begiratu ahal izango diegu.

---

<sup>17</sup> Mt 5, 3-12.

<sup>18</sup> Mc 16, 15-16

<sup>19</sup> Ikusi: *Cuadernos Cristianismo y Justicia*, J. Laguna, *Hacerse cargo, cargar y encargarse de la realidad*.

## Gure misioaren baitan aurkezten zaizkigun zenbait erronka<sup>20</sup>.

Garaiotan erronka eta eskari asko dauzkagu aurrean. “*Ikustetik begiratzera*”, “*entzun erantzuteko*” eta “*bidea komunitatean egin*” puntuetan adierazi legez, besteen errealtateek guregan eragin dutenez, jarraian jasota daude ibiltari eta Jesusen jarraitzaile gisa dugun bide-orrian barne hartu beharreko zenbait erronka, errealtateari gure bizitzetan sar dadin eta eralda gaitzan uzteko.

1. **Errealtateei begirada sakon eta fantasia sortzailez aurre egitea**; horretarako, Jainko hirukoiztarraren begi eta bihotzaz ikusi, entzun eta hunkitzeko gaitasuna zorroztu behar dugu. Funtsezkoa da begirada gauza garrantzitsuetan zentratzen ikastea, gure arretaren fokua non jarri behar den bereiztea eta une bakoitzeko lehentasunak identifikatzea, horrela baino ez baitugu lortuko energiak ez galtzea, eguneroko esfortzu eta lana ez desagertzea eta misioaren zentzua ez lausotzea.

2. **Behartsu eta ahulenen aldeko apustua egiten duen Eliza izatea, Jainkoaren Herria eta komunitateen komunitatea**. Haiiek dira gure ekintzaren hartzaile eta partaide, beren garapen propioaren eta Jainkoaren erreinuaren protagonistak. Pertsonarik behartsuenak dira gure bizitzetako egiazko ebanjelizatzaileak, beren bizitzak dohainak direlako, “leku teologikoa, Jainkoa gure bila datorren lekua; bertan, gurekin komunikatzen da eta hitz egiten digu. Jainkoarekin bat egiten dugun lekua dira, gugan hartzen eta maitatzen dugu”<sup>21</sup>.

3. **Bihotzetik isurtzen den eta konpromisoaren eragile den karitatea sustatzea**, egunerokoan elkartasun keinu sinpleak eginez eta pertsonarik behartsuenen garapen integrala sustatuz, bestearen gabezia eta beharrianak, gaitasun eta aukerak ezagutzen laguntzen digun maitasunean oinarrituta. “Maitatzea, orduan, besteari izaten, hazten, zentzu guztietan garatzen laguntzeko lan ederra bilakatzen da. Eta hori karitate- eta gizarte-ekintzan proiektatuta, karitateari esker asistentzialismoa gainditzen dugu, eta garapen integrala sustatzen. Izan ere, gorputza eta arima, norbanakoa eta komunitatea, pertsona eta gizartea bera integratzea helburu izan behar du Garapenak”<sup>22</sup>.

4. **Justiziaren alde lan egitea eta pobrezia eragiten duten egiturak eraldatzea**. Espainiako gotzainek argi eta garbi adierazi zuten *Iglesia, servidora de los pobres* (ISP) konferentzian,

---

<sup>20</sup> V. Altaba, Paco Cristobal, Kiko Lorenzo. *Retos que se nos plantean en la acción caritativa y social*.

<sup>21</sup> V. Altaba, *Ibíd* 27.or.

<sup>22</sup> Frantziskok Dikasterioak Giza Garapen Integralaren alde antolatutako Kongresuan emandako hitzaldia, *Populorum progressio* kartaren 50. urteurrenean, Erroma, 2017ko apirilaren 4a.

Caritasen eragile eta XXI. mendeko kristau garen neurrian, gure bide-orrian barne hartu beharreko erronka: "Elizak konpromiso sozialera deitu gaitu. Pertsonak eta pobreziaren kausak eraldatuko dituen konpromiso soziala izan behar du, bidegabekeriak salatuko dituena, sufrimendu eta mina baretuko dituena eta Ebanjelioaren mezu eraldatzailea praktikan jartzen lagunduko duten proposamen zehatzak eskaintzeko gai izango dena, fede eta karitatearen inplikazio politikoak bere gain hartuta"<sup>23</sup>. Karitate prebentibo eta sendatzailea burutzeko gonbitea luzatzen zaigu, aldi berean salaketa zentzuzko eta ausartaren bidez errealitatea eraldatzeko proposamen zehatzak egingo dituena.

#### **5. Elkartasuna komunitatean oinarrituta birpentsatzea eta giza eskubideak defendatzea.**

Frantziskoren hitzetan, "komunitate terminoetan oinarritutako pentsamolde berria sortzea da gakoa, guztien bizitza batzuek ondasunak edukitzearen gainetik jarriko duena", "behartsuari dagokion hori itzultzea" eta "herrien eskubideak defendatzea". Guztion ongizatearen alde lan egitea da kontua, pertsona ororen duintasuna eta ahulenen eskubideak bermatuko dituen bizitza erraztu eta defendatuz.

**6. Ekonomia barne-hartzaile eta elkartasunezkoa bultzatzea.** V. Altabak dioenez, errukia berreskuratu behar dugu, bestearen azalean jartzen ikasi eta ekonomia berekoitik erruki-ekonomiara igaro. Gaineratzen du jendarte barne-hartzaile baten alde lan egin behar dugula, guztiok parte hartzera bultzatu eta inor baztertuko ez duena. Lan horretan trebatzeko, Frantzisko aita santuak lehengora itzultzeko gonbita luzatzen digu: "gauza txikiak baloratzeko aukera ematen digun sinpletasunera itzuli, bizitzak eskaintzen dizkigun aukerak eskertu eta daukagun horri lotu, ez daukagunagatik tristatu gabe. Horretarako, beharrezkoa da domeinuaren dinamika eta plazerren pilaketa hutsa saihestea"<sup>24</sup>.

**7. Guztion etxea zaintzeko konpromisoa.** XXI. mende hasieran, jendarte zibilak Lurraren Karta<sup>25</sup> bultzatu zuen nazioartean, egungo ezinegona islatzen duen dokumentua: "Lurraren historian une zaila da hau, eta gizadiak bere etorkizuna erabaki behar du (...). Hautua geurea da: Lurra zaintzeko jendarte globala sortzea eta elkar zaintzea, edo geure zein bizitzaren aniztasunaren jarraitutasuna arriskuan jartzea". Aurrean dugun egoera larria agerian uzten digun ultimatumak egin arren, itxaropen izpiak ere badira bere hitzetan: "Historian inoiz lehenago ez bezala, hasiera berri bat bilatzea da guztion patua". Geure esku dago elkarrizketa ekologiko sakona abian jartzea, sorkuntzarekin berriro ere adiskidetzea eta haren zaintzaile eta babesle bilakatzea. "Adiskidetze hori ahalbidetzeko, geure bizitzak aztertu behar ditugu, eta geure ekintza eta egiteko ezintasunak Jainkoaren sorkuntza nola kaltetzen duten aitortu. Konbertsioaren esperientzia gauzatu behar dugu, bihotza aldatu"<sup>26</sup>. Geure bizimoduan

---

<sup>23</sup> ISP, 40.

<sup>24</sup> Frantzisko, *Laudato sí*, 222.

<sup>25</sup> *Lurraren karta*, Haga, 2000ko ekainaren 29a.

<sup>26</sup> Australiako Gotzain Katolikoaren Konferentzia, *A New Earth – The Environmental Challenge* (2002).

soiltasuna eta gizatasuna txertatzeak ez du konbertsioa gauzatzen lagunduko, ezta planetarekiko zein izakiekiko adiskidetzea ere.

**8. Espiritualtasun irmoa lantzea eta karitatearen dimentsio ebanjelizatzailean sakontzea.** Gure bide-laguntza jasotzen duten pertsona behartsu eta ahulen errealitateak uki eta eralda gaitzan uztea posible da, baldin eta Jainkoarekiko elkartasunean oinarritzen bagara; “begi eta belarriak behartsuenei zabalik dituen espiritualitate hirukoiztarraren bitartez, samurtasun eta graziaren espiritualtasunaren bitartez, espiritualtasun eraldatzaile, pazkoar eta eukaristikoaren bitartez”<sup>27</sup>. Otoitz egiten duten emakume eta gizon izateak ez du esan nahi Jainkoaren borondateari zabalik gaudenik, ezta lurreko behartsuenengan eta sorkuntza osoan harekin bat egiten dugunik. Esker on eta doakotasunaren gisako jarrerak lagundu egingo digute pertsona behartsuekin eta beren errealitateekin beste modu batera konektatzen.

**9. Komunitatea adoretzea eta misioari lotutako bide-laguntza sendotzea.** Benedicto XVI.aren hitzetan, Elizak zeregin hirukoitza dauka: Jainkoaren Hitza *iragartzea*, sakramentuak *ospatzea* eta karitatea *eskaintzea*. Eliza garen neurrian, zeregin horiek komunitate osoarenak dira eta ez dira baztertzaileak, berdin-berdin adoretu eta sustatu behar dira; eta, karisma eta dohainen arabera, bakoitzak ikusiko du zein zeregin betetzera deitua dagoen.

Komunitatera adoretzeak esan nahi du bidea itxaropenaz egiteko poztasun eta gogoa sendotzea, aztertzea, sustatzea eta kutsatzea. Bide-laguntza egunerokotasunari lotuta dago, ekintza etengabeko prozesu gisa gauzatzeari; izan ere, pertsona, komunitate zein proiektuen aurrerapenak su txikitan prestatzen dira, Espirituaren erritmo berean, *dagokion ordu eta unean* ikusarazteko itxaropena eta utopia.

---

<sup>27</sup> ISP, n. 38.

## II ATALA: LANA ETA HAUSNARKETA

Dokumentu hau irakurri eta dastatzeko denbora eta lasaitasuna behar dira, baldin eta kristau-konpromisoa nola bizitzen ari garen, nondik gauzatzen dugun eta zertan eusten garen aztertu nahi badugu.

Hausnarketa zehazteko, arreta gehien eman diguten esaldiak, atalik interesgarrienak eta geure barnean zerbait mugitu duten pasarteak irakurri eta azpimarratzeaz gain, **Helduentzako gida praktikoa** ere prestatu dugu.

Zenbait zertzelada jasota daude jarraian, nork bere lan pertsonala eginez aztertzeko.

Bide hau egiteko deia luzatzen dizugu, ez zaitu axolagabe utziko eta. Nola egin, noraino iristeko prest egon ... hori norbanakoaren esku dago. Ez dago mugarik, ezta baldintzarik ere; pertsona bakoitza aske da ikusi eta entzuteko, munduaren zein geure errealitateek eskaintzen dizkiguten aukeretan barrena nabigatzeko desirak gidatuko gaitu.

### Ireki atea

*Hemen nago, atean, eta dei egin dut; inork nire ahotsa entzun eta atea irekitzen badu, sartu egingo naiz, harekin afalduko dut eta berak nirekin (Ap. 3, 20).*

- Zerk ematen dizu gaur ateak irekitzeko gogoia?
- Zer nolako berrietasun-xuxurlak iristen dira gaurkoan esparru pertsonalera, komunitariora eta sozialera?
- *Zeure munduaren* atea irekitzean, zer ikusten duzu *beste munduetan*? Zerbait esaten dizute? Zerbait esaten diote zure komunitateari?

### Zeren beldur zara?

*Nola izan daiteke pertsona zahar jaiotzen denean? Sar daiteke berriro amaren sabelean eta berriro jaiio? Jesusek erantzun zion: Bai, benetan diotsut: Pertsona uretatik jaiio ez bada, Espirituak ezin izango du Jainkoaren Erreinuan sartu (Jn 3, 4-6).*

Zeintzuk dira nire muga eta oztopoak ...

- egunerokoan inguruan ditudan pertsonetikiko?

- pertsona behartsuekiko, sufritzen duten pertsonetikiko, nire bizitzarengandik urrun dauden egoerak bizi dituztenetikiko, edozein arrazoiengatik "mehatxua" iruditzen zaizkidan pertsonetikiko?
- zer uste duzu behar dugula beldur eta oztopoak gainditzeko? nola lagun diezazukete zuri eta nola lagun diezaiekezu zuk?

## Utzi uki zaitzaten

*Samuel bere lekuan etzan zen. Jauna bertan agertu eta lehen bezala deitu zion: "Samuel, Samuel!" Samuelek orduan erantzun: Mintza zaitetz, mirabeak entzungo zaitu eta (1 Sam 3, 10).*

Munduarekiko, sorkuntzarekiko, gizadiarekiko konpromisoak behar-beharrezkoa du bizitzan aukera pertsonal eta komunitarioak bereiztea.

- Bereiztea berria al da zuretzat? Zeure bizitzako alderdiren batean txertatu al duzu, une zehatzen batean?
- Une honetan ba al da zure bizitzan bereziki bereizi behar duzun zerbait?
- Zer eragin dute zuregan egun munduan gertatzen ari diren zenbat gertakarik? pertsonen arteko indarkeriak, migratzaileak zeure parrokia edo auzora iristeak, muturreko klimatologia-egoerek eta horiek landa zein hirietan zuten ondorioek, gazteentzako enplegu faltak, ... ?
- Zer rol zehatz jokatzeko duzu zuk horretan guztian?

## Irten zaitetz elkartzera

*"Ezagutzen duguna baino ezin dugu maitatu, eta maitatzen duguna ezagutu". Beste pertsona batzuen errealitateak ukitzen gaituenean baino ez gara mugitzen, orduan erreakzionatzen dugu, horien errealitateaz bustitzen garenean, horien aulki berean esertzen garenean, eta mundua horien leku beretik sentitu eta ikusten dugunean.*

Besteekin elkartzeak bihotzaren dinamikan sartzea esan nahi du. Entzun eta besteekin elkartzera irteten garenean, Jainkoaren presentzia eta ahotsa azaleratzen dira. Orduan lor dezakegu Jainkoak munduan duen sakramentua bizitzea.

*Kendu oinetakoak, azpian duzun lurra sakratua da eta.*

## Egin bidea komunitatean

*Ez urundu Jerusalemetik; itxaron Aitaren promesa bete arte, neuk kontatu dizuedan promesa bete arte. Juanen bataioa urez izan zen; zuek, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuak izango zarete laster (Hvh 1, 4-5).*

Komunitatean, pertsona bakoitzak bere lekua du; geure dohainak deskubri ditzakegu eta mundua hobetzeko bidaliak gara. Ez gaude bakarrik. Burutzen dugun ekintza, konpromiso edo zerbitzua ez da balentria pertsonalaren fruitua, lan partekatuaren fruitua baizik:

Gure parrokia, talde edo komunitatean, lanean, boluntario-taldean eta abarretan beste pertsona batzuei **HARRERA** egiteko

- Zer jarrera sustatu, elikatu, bereizi behar ditugu, harrera, bide-laguntza, jarraipena bideratzeko.

### SUSTATZEKO:

- Zer egoera edo errealitatek behar dute arreta berezia eta zaintza gure inguruan? Egin dezaket zerbait?

Pertsonarik ahulenak **BABESTEKO**.

- Gure inguruan, harreman-gunean zer pertsona dira ahulagoak?
- Zer egin dezakegu eta nola hartuko ditugu gure artean?

Pertsonak **BARNE HARTZEKO**.

- Barne hartzeak elkarrekin parte hartzea, amestea, eraikitzea ... esan nahi du. Marraztuko dugu denona izango den ametsa?

*Caritasen 2018-2019 denboraldiko Kanpaina Instituzionalaren Oinarriak*